

NZ-bait izenordain zehaztugabeen jatorriaz

Ricardo Etxepare

► **To cite this version:**

Ricardo Etxepare. NZ-bait izenordain zehaztugabeen jatorriaz. Lapurdum VI, Iker - UMR 5478 Euskarari eta euskal testuei buruzko ikerketa gunea, 2001, pp.93-118. <artxibo-00000049v2>

HAL Id: artxibo-00000049

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00000049v2>

Submitted on 14 Dec 2005

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

NZ-BAIT IZENORDAIN ZEHAZTUGABEEN JATORRIAZ

0. Sarrera¹

Izenordain zehaztugabeen eremuak euskaraz *nor/zer* galderazkoak² eta haien gainean eraikitako zenbatzaileak biltzen ditu (EGLU I, 87-103; EGLPB, 58-67): *norbait/zerbait* gisako existentzialak, *edonor*, *zernahi* bezalako unibertsalak eta *inor/ezer* polaritatedunak³. Eremu hau, orohar, bereziki egongaitza eta aldakorra da diakroniaren aldetik (ikus, gainbegiratu orokor baterako, Haspelmath, 1997, seigarren kapitulua). Lan honek euskarazko *nor/zer-bait*-en gisako izenordain zehaztugabe existentzialen jatorria tratatzen du, eta hipotesi berri bat defendatzen: *nor/zer+bait* formak adjunktua funtzioa betetzen duten perpasu erlatibo libreterarik heldu direla. Hipotesi honen arabera, forma horien azpian honelako egiturak izango genituzke⁴:

- (1) a. ...bainan zuek trublutzen zaituztenak, ekarriren du kondemnazioa, **nor ere baita** hura (Leizarraga, Gal 5, 10)
- b. ...bainan zuek altarutzen zaituztenak ekarriko du horren pena, **nor ere baida** hura (Hnd. Ibidem)

Biak latinezko “qui autem conturbat vos, portabit iudicium, **quicumque est ille**”-ren itzulpenak.

Batetik besterako bidea (hau da, balio unibertsaleko perpasu erlatibo libreterarik balio existentzialeko izenordain mugagabeetarainokoa) tipologian ondo bermatua dago (ikus 3.atala), eta hipotesiak euskaraz izenordain zehaztugabe existentzialek erakusten duten forma aldeko ugaritasuna zehazki mugatzeko bidea ematen du. Garrantzi handia izango dute, hipotesi honen justifikazioan, izenordain zehaztugabe existentzialen jatorriaz arduratu diren ikerlari bakanek (Lafon, 1944, 1966 eta 1973; Trask, 1997) aintzat hartu ez dituzten eta itxura batean osoagoak ematen duten forma historiko batzuk, hala nola *norbaita*, *zerbaita* edo *noizbaita* bezalakoak.

1. Nz...-bait formak ahozko eta idatzizko tradizioan

Gauza jakina da *norbait/zerbait* gisako formen esparruak aldaera ugari dauzkala ahozko nahiz idatzizko tradizioan. Atal honetan, aurkitu ahal izan ditudan aldaera guztiak bildu ditut. Aldaera guztiok lau egitura orokorretan bil daitezke. Egitura hauek atalburuan ematen ditut.

1.1. [[NZ [(PL) [KASUA/POSPOSIZIOA]]] [BAIT]] formak

Honelakoetan aipatuenak (Lafon, 1966) Dechepare-k dakarzki:

- (2) a. **Norc baytere** amoria niri daraut muthatu (VII,7)
- b. **Norc vaytere** eguyn deraut malicia handia (XIII, 31)

Horiez gain, Añibarrok *noribait* ere dakar (EL² 137). *Nortzu* formekin lotuak dira XIX.mendean Bizkaiko autoreengan agertzen diren *nortzukai* (Astarloa II, 194 eta Uriarte MarIl, 60) eta Juan Jose Mogelen *nortzukai*, hemen ematen duguna⁵:

- (3) Egija da emen [...] ez dakigula iñok bere ziur ziur grazijaan aurkituten garianik, Jangoikuak **nortzuibait** agertu edo errebelatu ez badautsee (Mayatz 51)

Gipuzkoan, Agirre Asteasukoaren etsenpluak ere baditugu:

- (4) Nai nuke **nork ere bait** begi onez ekustea, gizonai ederra iritsitzea (Eracusaldiac, III, 552)

Kasua tartean agertzen duten etsenpluez gainera, badira ere pospozizioa tartean agertzen dutenak. Horietako batzuk egun ere ohikoak dira (*nonbait*, *noizbait*, *nolabait* eta *norabait*), baina ez guztiak: Azkuek *zertazbait* (R-bid) “de algo, de quelque chose”) eta *zetanbait* (B-mañ) “por algo, en busca de algo; pour quelque chose, en quête de quelque chose”. Horiekin batera *nondikbait* eta *nondik-baitetik* ere badugu (OEHtik):

- (5) a. Lar-abere asko zan orduan erori/Alere sortu dira **nondik bait** iori (Izt, Condaira, 195)
b. **Nondikpaitik** aditu dut “j’ ai entendu de quelque part” (Dv, Hiztegia)

1.2. [[NZ [(B)ERE [BAIT]]]

Nola-rekin, baditugu *nolarebait*, *nolerebait* (Azkuek Gipuzkoan bilduak) eta *nola(b)erebait* eta *mulerebait* (Azkueren arabera zubereratikoak). *Non*-ekin: *munerebait*, *nonberebait* “seguru aski” esan nahi dutenak (Añibarroengan) eta *nunerebait* “nonbait (lekuzkoa)” (Beovide, AsL 205). Mendiburuk *noraerebait* dakar eta Urte-k (Hiztegia I, 501), Agirre Asteasukoak eta Beovide-k *noizerebait*. Horra exenplu gisa (6):

- (6) **Noiz-ere bait** biur gaitezen gerengana, nere kristauak (Eracusaldiac, III, 343)

Forma hauen sailean sartzen dira baita ere Leizarragaren *cembaterebeit*, *cembatrebeit*, eta *ceimbaitrabeit*:

- (7) a. Eta egon guentecen hiri hartan **cembatrebeit** egun (Apostoluen Acteac 16,12)
b. Igorrac **cembaiterebeit** gende Ioppera... (Apostoluen Acteac 11, 13)
c. Eta **cembaitrabeit** egunean buruan,... (Apostoluen Acteac 24, 24)

1.3. [[NZ [-KO [-A]]] BAIT]]]

Azkuek *nolakoabait* (AN, BN, G, L...) ematen du hiztegian “regulier, passable, de qualité quelconque” esanahiarekin. Baita *zelangoabait* ere (bait- sarreran, esangura adierazi gabe).

1.4. [NZ [(ERE) [BAITA]]]

Bere morfologian (266. Sarrera, 192.orr.), eta hiztegian ere bai, ohiko *norbait/zerbait*, *norbeit/zerbeit* eta *norbaist/zerbaist*-en ondoan, Azkuek *nopaita* (B) eta *zepaita* (B-mu) ere jasotzen ditu. *Nopaitxe* aldaera ere jaso dago (OEH: Ortuzar,

Voc, 141, V-ger), eta gaur egun bizirik dirau gutxienez Bermeon, *zepaitxe* -rekin batera (Bilbao, 1998). Bermeoko euskaraz idatzitako De la Quadraren 1784ko dotrinan (Bilbao, 1998) *norbaita* aurkitzen da:

(8) iñoc **norbaita** ilten dabengan... (Doctr.54)

Zerbaita forma, bere aldetik, ez da guziz arrotza testuetan: Juan de Zumarragaren gutunean agertzen da (A Tovar, E. Otte & L. Michelena, 1981; Sarasola,1983):

(9) mjlla ducat bidalduco ditugula urte onetan njc uste: orayn vere **cerbayta** voa,...

Juan Ortiz de Velascoren itzulpenean *cerbayta* hori egungo *zerbait* arrunta da⁶: “...pienso que enbiaremos este mill ducados. Tambien ba **algo** agora...”

Norbaita/nopaita eta *zerbaita/zepaita* formez gainera, *munbaita* eta *nospaita* ere aurkitzen dira⁷. Añibarro-k *munbaite* dakar Esku Liburuan. *Nunbaita* Urquizuren bertsoetan (1737) agertzen da (OEHaren nonbait 2 sarreratik) “seguru aski” ren esanahiarekin:

(10) orra nun doian erruki baga/odolezko iturriia/**nunbaita** oorain amaituko al dau/bere betiko egarriia

Azkuek, Euskalerraren Yakintzan *munbaita be* (B-1) eta *munbaite be* (B, Alt) jasotzen ditu “jakina, noski, bai horixe”-ren esanahiarekin, eta hiztegian berriz *nunebeita* (S) “noski, seguru aski”ren adierarekin baita ere, mende honetan Eskualduna aldizkaritik hartua⁸:

(11) Berantto orai mahatsez mintzatzeko, erranen dü **nunebeita** irakurzale batek beno haborok (Eskualduna, 17-XI-1905)

Noizbaita-ri dagozkion aldaerak ere badira: Olaetxearen dotrinan (1740) eta Zuzaetaren idazkietan (XVIII. mendearen bukaeran). Olaetxearen exenplua, hauxe (OEH, noizbait sarrera, 847.orr.):

(12) **Nos baita** bearra egin lei domeka eta jaiegun bearrik ez egiteko esanta dagozanetan?

Eta Zuzaetarena:

(13) Azkenik dauko obligaziñoia **nosbaita** emaztiaren konsejuba artu eta bere esana egiteko

2. Egungo izenordain zehaztugabe existentzialen sorreraz bi hipotesi: Lafon (1944, 1966, 1978) eta Trask (1997)

Azkue izan zen lehenbizikoa ohartzen (edo ohartarazten) *norbait/zerbait* formetako *-bait* atzizkia menpekotasuna markatzeko baliatzen den *bait-* flexio-aurrizki berbera izan zitekeela (*Morfologia Vasca*, I, 529. sarrera). Azkuerentzat,

deigarri egiten zen izenordainei lotzen zaien atzizki horrek aldaera dialektal bat duenean, adizki jokatuari lotzen zaion aurrizkiak ere aldaera bera izatea. Honela, -*baist* (Azkuek B, hau da bizkaikoa) eta -*beit* (Azkueren arabera S, hau da Zubererari dagokiona) -*bait* orokorrangoaren aldaerak baldin badira, adizki jokatuari lotzen zaien aurrizkien kasuan eremu bertsuetan aldaera berberak aurkitzen ditugu⁹.

Lafon-ek Azkueren ohartarazpena aintzakotzat hartu eta urrutiago eramanaz aurrizki-atzizkien identitatearen tesia proposatu zuen (1944, 481-491.orr.; 1966; 1973, 43-45.orr.). Lafon-en arabera, *bait* funtsean baiezkotasuna azpimarkatzeko erabiltzen den *bai* forma librearen kidea da¹⁰. *Bait* forma, adizki jokatuari nahiz izenordainkiari lotzen ahal zitzaizen. Ikuspegi honetan, *nor baitago* eta *norbait dago* biak ere **nor bait dago* zaharrago batetik heldu dira, zeinetan *bait* formak alde batera edo bestera egin zezakeen, baiezko tasuna izenordainkiari edo adizki jokatuari (eta beraz, proposizioari) eratzekiaz. *Bait*, egun, izenordainkiaren edo forma jokatuaren parte da, baina haren behinolako izaera librea izenordain zehaztugabeen aintzineko zenbait formatan ere igar daiteke. Honela, esate baterako, Dechepare-k *nork bait ere* dakar, ohikoa dugun *norbaitek*-en aldean (ikus 1.1. atala). Asumituaz flexioari (eta beraz, kasuari) dagozkion morfemak sintagma “itxi” egiten dutela zernahi ondoko operazio morfologikorentzako, Dechepare-ren forma horiek *bait* oraindik bere eskuko zen garaia jasotzen dute, Lafonen iritzian¹¹.

Trask-ek (1997, 197-198.orr.) Lafon-ek ez bezala, *bait* forma jatorrian adizki jokatuari dagokiola proposatzen du. Harentzat, *nor/zer* formak galderazkoak nahiz mugagabe hutsak izan zitezkeen, baina mugagabeko formek *bait*- aurrizkia galdetzen zuten beti adizki jokatuan. Delako egoera hartan, **nor baitzen* bezalako hurrenkerak bestelako zatiketa baten bidetik interpretatzen hasi ziren: *norbait zen* gisa, alegia. Hortik egungo mugagabeak¹².

Bai Lafon-ek eta bai Trask-ek gogoan duten ustezko aurreko egoeran, euskarazko *nor* eta *zer* bezalako galdera hitzek berezko balio zehaztugabea dute, eta beregainki jokatzen dute sintaxian. Hau propietate tipologiko arrunta da, munduko hizkuntza askok erakusten dutena (ikus, besteak beste, Cheng, 1991; Bhat, 2000).

Lafonen eta Trask-en hipotesiak ez dira hein berean moldatzen bildutako mugagabeen aldaeren aurrean. Har esate baterako 1.1. ataleko kasuak, kasu marka *nor/zer*-en eta *bait* partikularen artean agertzen direnekoak:

(14) Nork baitere amoria daraut muthatu

Lafonentzat, Dechepareren etsenplu honek *bait* partikula bere eskuko zen garai bat ematen digu aditzera. Egungo termino sintaktikoak erabiliaz, esan genezake *bait*, baiezkotasuna adierazten duen *bai*-rekin lotua dena, maila proposizionaleko buru funtzional bat dela, edo gisa horretako buru bati lotua dela (Laka, 1990 -en zentzuan). *Nork* horrenbestez, buru hori baino gorago dago. Lakari jarraituz buru hori *Sigma* izendatuko dugu:

(15) [_{SSint} Nork_i [_{SSint} baitere [_{IP} t_i amoria daraut muthatu]]]

(15)eko egitura guziz hipotetiko da noski, baina maila proposizionaleko morfemek haien semantikarekin zer ikusia duen posizio sintaktiko bat hartzen badute, (15) ezin da urrutiegi ibili behintzat *nork* eta *bait*-en elkarrekiko kokapenari dagokionean. Trask-en hipotesian, ordea, hasiera batean adizki jokatuari lotua den aurrizkiak izenordainarekin bat egiten bukatu behar luke. Bat egite hori bide morfologiko ohikotik egiten baldin bada, handik sortzen den forma konplexuak ezin du kasu marka bere baitan hartu. Nolabait esateko, Decheparerena bezalako kasuetan *bait*- aurrizkia bide erdian gelditu da: adizki jokatutik urrutiegi eta izenordainarengana txit ailegatu gabe.

Bata zein bestearen hipotesiak, bestalde, zer esanik ez dute 1.4.-ko (*nopaita/zepaita*) formei buruz.

3. Euskarazko izenordain zehaztugabeak tipologiaren argitan

Haspelmath (1997)-ek, gaur arte gai honen inguruan egin den lanik zabal eta osoenean, izenordain zehaztugabeak kasurik gehienetan deribaturiko formak direla defendatzen du, galderazko izenordainen edo izen mugagabe simple baten eta indar kuantifikazionala eratzekitzen dion partikula baten elkarketaz eratuak. Euskararen izenordain zehaztugabeen sailari begiratzen badiogu, jeneralizazioa ezin zuzenagoa da:

(16)	Esistentzialak	Polaritatedunak	Unibertsalak-1	Unibertsalak-2
	Nor- <i>bait</i>	<i>i</i> -nor / <i>ne</i> -hor	<i>nork</i> - <i>nahi</i>	<i>edo</i> -nor
		(<*e-nor, Mitxelena, 1985)		

Tipologiaren aldetik, izenordain sinpleei ezartzen zaizkien partikula edo emendailu horiek bi iturburu nagusi dute: lehena, zehazkabetasuna adierazten duten perpaus osoen gramatikalizazioa da; bigarrena, galderazko izenordainaren edo izen mugagabe sinplearen denotazio egituran mailakatze bat eragiten duten foko partikulak dira¹³. Bi iturburu hauen adibide gisa, hona hemen bi kasu, lehena Lituaniarari dagokiona, bigarrena Serbo-kroazierarena (Haspelmath, 1997, 131 eta 138.orr.)¹⁴:

- (17) a. *kaz-kas* (*kazin-kas*, *kazno-kas*) “norbait” < *kas zino kas* “nork daki nor”
 b. *i-ko* “edonor” < *i-* “ere” + *-ko* “nor”

Lituaniararen kasuan, gramatikalizaturiko perpaus nagusi oso bat haren menpekoa zen (edo haren menpekoaren barnean) zen galdera hitzaren aurrizki bilakatu da. Bigarren kasuan, euskarazko *ere*-ren kide den zerbait galdera hitzari zuzenean lotzen zaio izenordain zehaztugabe unibertsal bat eratzeko.

Bi prozedura hauek predikzio desberdinak egiten dituzte euskarazko izenordain zehaztugabe existentzialen izaerari eta jatorriari buruz. Lehen bideari segituz gero, *nork/zerbait* sailaren azpian gramatikalizaturiko perpaus osoak ditugu. Bigarren bideari jarraituz gero, *-bait* jatorrian behintzat mailakatze balioa zuen foko partikula bat da, *nork/zer* galderazkoei lotzen zitzaiena.

Horrekin lotua dago bigarren problema bat: Azkuek eta Lafonek *bait* aurrizki-atzizkien artean ikusi uste izan zuten kidetasuna zinezkoa bada, zer egiten dugun itxuraz osoagoa den *-baita* atzizkiarekin. Azkue-Lafon-en bidetik abiatuta, bi aukera

daude bakarrik: edo *bait-* aurrizkia jatorrian *baita-* da eta adizki jokatuen aurrean (eta euskalki gehienetan, hitz bukaeran) bokala galdu du, edo *-baita* atzizkiak badu erantsizko zerbait, oraindik identifikatu ez duguna, eta oinarrizko forma adizki jokatuekin aurkitzen duguna da.

Lehen problema sailari gagozkiola, bigarren hipotesia besterik gabe bazter daitekeena da. *Nor/zer* galderazkoaren ondoan datorrena ez da mailakatze funtzioa duen foko partikula bat, baizik eta konplementatzaile bat, proposizio mailako menpekotasun erlazio bat adierazten duen zerbait, Azkuek eta Lafon-ek ikusi zuten bezala¹⁵. Honenbestez argi dago izenordain zehaztugabeen jatorriari begiratu ez gero, lehen hipotesiari jarraiki behar gatzazkiola, eta ez bigarrenari. Honek, edozein kasutan ere, ez digu bigarren arazoa konpontzen, alegia konplementatzailearen eta izenordain zehaztugabeak sortzen dituen atzizkiaren azpian *baita* dagoen, ala *-baita* atzizkia eta *bait-* aurrizkia bereizi behar ditugun. Ohar gaitezen gramatikalizazioaren bidetik jotzen badugu, bukaerako *-a* hori gramatikalizazio prozesuan karriaturiko elementu bat izan daitekeela, jatorrian *bait* atzizkitik berezia dena. 3.1. atalean lehen posibilitatea tratatuko dut laburki. 3.2. atalean, bigarrena eta hobetsiko dudana.

3.1. Litekeen *baita-* aurrizkiak

Bait- aurrizkiaren eta *-bait* atzizkiaren azpiko forma *baita* bada, ez da beharbada burugabea biak balizko *bai eta* batetik heldu direla pentsatzea¹⁶. Adizki jokatuei lotzen zaien aurrizkiari dagokionean, ez dirudi fonologikoki problema haundiak sortzen dituenik: *baita*, *baitu* forma jokatuen azpian honelako prozesu bat izango genukeen:

- (18) *bai eta da> *baita da> *baitaa> baita
*bai eta dadu> *baita dadu> *baitadau> *baitau>baitu

Bait- forma laburragoa bilakaeraren emaitzak ahalbideraturiko segmentazio berri baten ondorio izango litzateke.

Azpiko *eta* ren presentziak esplikatu lezake zergatik *bait* -ek berez denborazko balioa izan dezakeen Lafon-ek aspaldi nabarmendu egitura batzuetan (Lafon, 1966, 683-686; Oihartzabal, 1987):

- (19) zu jin báit, eginik duket “pour votre arrivée, je l’aurai fait” (Lafon, 1966, 683.orr.)

Bait- beste aldetik, bitxia da menpekotasun erlazio oso desberdinak markatzen dituelako (kausalak, moduzkoak, denborazkoak, Lafon, 1966; Oihartzabal, 1987). Jakina da juntagailuak subordinazioari dagozkion menpekotasun erlazioak ahalbideratzen dituztela, behin diskurtsuan txertatuz gero (Culicover eta Jackendoff, 1997; edo Rebuschi, 2001, juntaketa eta subordinazioaren arteko mugak desegiten dituen ikuspegi baterako), eta menpekotasun erlazio hauek askotarikoak izan daitezkeela. *Bait-* en azpian *bai eta-* dagoen ala ez berariazko azterketa merezi duen kontua da, nere irudiz, baina ez dut uste izenordain zehaztugabe esistentzialen jatorria argitzeko orduan argi gehiegi egiten digunik. Batetik, ez dugu batere lekukotasunik konplementatzaile gisa funtzionatzen duen *bait-* aurrizkiari dagokion azpiko forma *baita* dela erakusten duenik. Pentsatzekoa da hala ere, delako *-baita* atzizkia, bere

osotasunean mantendu bada izenordainen sailean, arrastoren bat utziko zuela baita ere adizki jokatuena dermionan. Baina ez dugu bakar bat ere.

3.2. Gramatikalizazioaren hipotesia

Bildu ditugun aldaera guziak elkarrekin jartzen baditugu eta haien elementuak forma bakar batean biltzen, ateratzen den emaitza ezagun egiten zaiguna da. *Nor/zer* absolutibo batetik abiatuz gero, honakoa:

- (20) *Nor/zer*... (forma guziek dutena) =>
Nor/zer ere... (1.2. formatatik) =>
Nor/zer ere bait... (1.1, 1.2, 1.3) =>
Nor/zer ere baita (1.4. ko formek erakusten duten akabuko bokala erantsiaz)

Baina, noski, azken forma hau erlatibozko libre bat da, *nor/zer* galderazkoen gainean eratutakoa. Hona, esate baterako, kasu eta preposizio desberdinak agertzen dituzten izenordain zehaztugabeen (1.1. formak) dagozkien (edo legozkiekeen) ale batzuk¹⁷:

- (21) a. **Nor ere baita** ez da sarthuko “*Quel qu’il soit, il n’entrera pas*” (Duvoisin-en hiztegitik)¹⁸
b. **Nola ere baita**, bada fikzioez, bada egiaz, Krist predikatzen da “*en quelque manière que ce soit*” (Leič., Phil 1)
c. **Non ere baita** “*quelque part qu’il soit*” (Pouvreau, Hiztegia)

Tipologikoki, egitura hauek oso iturburu ohikoa dira izenordain zehaztugabeentzat. Haspelmath-en arabera (1997, 129-139.orr.), gramatikalizazioz eratu diren izenordainek hiru iturburu nagusi dituzte: lehen iturburua, berak *ez dakit zer* gisako zehaztugabeak (ingelesez *dunno type*) deitzen dituenak sortzen dituenak da¹⁹. Honelakoetan perpaus nagusi oso bat zehazkabetasuna adierazten duen aurrizki bilakatzen da. Perpaus hori jakingabetasuna adierazten duena izaten da. Horrelakoak aurkitzen dira esate baterako Ingeles Zaharrean (22a), Bitarteko Goi Alemanieran (Middle High German, (22b)), eta egungo errumanieraz, dialektalak diren formatan (22c) (Haspelmath, 1997, 131.orr.):

- (22) a. *nathwa* “norbait” <*ne wat hwa* “ez dakit nor(k)”
b. *neizwer* “norbait” <*ne weiz wer* “ez dakit nor(k)”
c. *nestine* “zenbait” <Latinezko *nescio quis* “ez dakit nor(k)”

Bigarren iturburua, *nahi/gogo*-ren presentzia erakusten duten izenordain zehaztugabeak sortzen dituenak da (*want/please type*): *nor/zer* bezalako izenordainkiei lotuak agertzen diren hainbat atzizki nahia, gogoa edo atsegina adierazten duten elementuak dira, normalki aditz lexikalizatuak (Haspelmath, 1997, 132. orr.). Hauek erlatibo libreetarik heldu dira. Kasu ezagunak dira gure artean latinezkoak (23a), eta espainolezkoak (23b). (23c) errumanierako forma dialektal bat da:

- (23) a. *qui-vis* edo *quilibet* “inor” <*qui* “nor” + *vis* “nahi duzun” edo *libet* “atsegin den”
b. *cualquiera* “edozein, zernahi” <*cual* “zein” + *quiera* “nahi duen”
c. *cine-va* “norbait” (*cine* “zein” + *va* <*vrea* “nahi du”)

Euskarazko *zernahi*-k, dakigunez, iturburu bera du²⁰.

Azkenik, Haspelmath-ek “*it may be*” *type indefinites* deitzen duenen saila dago. Hauek predikazio kopular baten gainean eraikitako erlatibo libreterarik heldu dira. Erlatibo libre hauek euskarazko *nor/zer/zein ere baita* formen kide garbiak dira. Adibidetzat, frantsesezko (24a), errusierazko (24b) eta hebraierazko (24c):

- (24) a. *Qui que ce soit* “zein ere baita”
b. *kto nibud* “inor, norbait” <*kto ni budi* (*kto* “nor”, *ni* “ere” *budi* “baita”)
c. *mi-se-hu* “norbait” < “nor ere baita”

Euskarazko *nor/zerbait* formak beraz, sail honi legozkioke: azpian predikazio kopular bat duten erlatibo libreterarik eratorritako izenordain zehaztugabeen sailari alegia. Aipatzekoa da (*zernahi*-ren gramatikalizazio patroia bertsuari jarraitzen zaiolarik), forma hauetan zehazkabetasuna adierazten duen parte atzizkia dela, espero litekeen bezala. Honek (ikus azken atala) *zernahi* eta *zerbait* sailak *edonor* eta *inor* sailetatik bereizten ditu. Lehenbizikoen kasuan, gramatikalizazio prozesuak, erlatibo libreterarik abiatuaz, atzizkiak sortu ditu, erlatibo libreteran *nor/zer* izenordainkiak erlatibatzearen markaren edo aditz-izenaren (*zernahi*-ren kasuan) aurretik doazelako²¹. *Edonor* eta *inor*-en sailak, aurrizkien bitartez eratuak, litekeena da gramatikalizazio prozesu baten emaitza ez izatea, baizik eta izenordainkien gainean zuzenean eraikitako formak²².

Gramatikalizazio prozesuaren azpian dauden erlatibo forma hauek berehala esplikatzen dute aurreko hipotesietan zail gertatzen ziren aldaera batzuk. Batetik, *norbaita/zerbaita* bezalakoak, erlatibo librearen adizki jokatu oso gordetzen duten formak dira. *Nolakoabeit* bezalakoak, beste alde, *nolako baita* erlatibo libreari dagozkio. Horrelakoak ere arruntak dira tradizio literarioan²³:

- (25) a. **Zelangoa baista** amea, alangoa oi da alabea (RS, 35)
b. **Nolako baita** nihor bera baitan, hala iujeatzen du kanpotik (SP *Imit* II 4, 2)

Kasua tartean agertzen duten egiturak, *-bait(a)* formek oraindik erlatibozko librearen barne egitura gordetzen duten egoera jasotzen dute. *Nolerebait* bezalako formak mailakatze partikula (*ere*) gorde duten erlatibo libreterarik eratorritako forma fosilizatuak dira.

Esan behar da, kasu marka tartean agertzen duten etsenpluetan, kasu perpaus nagusiko flexioak ezartzen duela. Kasu marka galdera izenordainari atxikia erakusten duten izenordain guztiak behinolako perpaus oso baten egitura morfologikoa besterik gordetzen ez duten forma lexikalizatuak dira. Begiak antzeko gramatikalizazio prozesua jasan duten *nornahi/zernahi* formatara itzultzen baditugu, iduri du kasu menpekotasun hau, adizki jokatu bera galdu baino lehenagokoa izan zitekeela (OEH, nornahi sarrera, *nork nahi den* azpi sarrera):

- (26) a. Fideletaric **nork nahi den** Iainkoa bere aita dei ahal dezake partikulariki (Leič., Ins E 4v)
b. ... **nork ere nahi den** egin lezan (Samper)

3.3. Bokalaren erorikoaz

Hau guztia zuzena baldin bada, egungo formak *norbaita/zerbaita* formetarik sortuak dira, bukaerako bokala erori ondoren. Bokalaren eroriko hau ondo ordezkaturago adizki jokatuena bukaerako *-a* ren kasuan (ikus Mitxelena, FHV, 131-132; De Rijk, 1981).

Hori horrela bada, baina, predikzio garbi bat egiten dugu: espero dugu gramatikalizazio prozesuan bitarteko egoera bat aurkitzea, zeinetan bokala hitzaren azken posizioan gertatzen ez denean, forma osoena aurkitzen baitugu. Bizkaialdeko idazleengan (gogora *nopaita/zepaita* formak bizkaieraz aurkitzen direla bakarrik) aurkitzen ditugun alternantzia bitxi batzuk bitarteko egoera horren adierazle izan litezke. Ez Juan Antonio Moguelek, ez Zavalak, ez eta Vicenta Moguel-ek ere ez dute *zerbaita* bezalako formarik agertzen, baina bai, itxura batean, haietatik eratorritako *zerbaitako* forma:

- (27) a. Bizi naizala banaiz **zerbaitako**; illtzen banazute, ez ezertako (V.Moguel, Ipui Onak, 96)
- b. Bizi nazala banaz **zerbaitako**; ilten banozue ez ezetako (Zavala, Alegiak, 532)
- c. Aita seme batzuk jua dira sabaira, aita katu aundijaz ta semia bere bai **zerbaitakuan** (JA.Moguel, Peru Abarka, 61)

Ildo berean, Azkuek ez du *zelanbaista* edo *zelanbaita* aldaerarik jasotzen, baina bai haietatik eratorriak ematen duten *zelanbaistako* eta *zelanbaitako* “cosa buena, apreciable, magnífica; chose bonne, appréciable, magnifique”. Honako etsenpluan bezala (B-1):

- (28) **Zelanbaitako** belarritako urrezkoak ekarri deutzaz osabeak Habanatik

Halaber *zenbaitan* (AN-Ond), bestela ere aurkitzen zail ez dena:

- (29) Guk elkarrekin **zenbaitan** broma pixka bat ere izaten genuen (Lizaso, Jose Joakin Mitxelena gogoan, 42.orr.)

Eta beste horrenbeste *nolabaitan* (OEH, “de alguna manera”) formarekin, *nolabaita*-ren arrastorik aldean ez duena:

- (30) Ustegabeko eraso **nolabaitan** gaindu naiean (Tomás Agirre, Uztaro, 18..orr.)


4. Gramatikalizazio prozesuaz

4.1. Izenordain zehaztugabeak: sailkapen bat eta implikazio erlazioak


Aspaldi xamar, Edmonson-ek (1983), polaritadedun adizki laguntzaileen hizkuntzarteko distribuzioa aztertu ondoren, hizkuntzek izenordain funtzioak eta izenordain formak nola uztartzen zituzten irudikatzen zuen diagrama bat proposatu zuen. Diagrama honetan, polaritadedun laguntzaileak agertzen diren kontestuak adierazten dira, halako moldez non izenordain bat funtzio horietako batean ager badaiteke, orduan ezkerreko funtzio guztietan ere agertu ahal izango baita:

- (31) ezezkoak>galderazkoak>baldintzazkoak>konparaziozkoak

Haspelmath-ek (1997), 40 hizkuntzetako izenordain zehaztugabeak xehero aztertu ondoren, eta beste 100 hizkuntzetako datuak kontsideratu ondoren, dimentsio bitako diagrama baten bidez ordezkatzan du Edmonson-en dimentsio bakarreko diagrama²⁴:



Hasplmath-en arabera, (32)ko mapak izenordain zehaztugabeen hizkuntzarteko distribuzioaren berri ematen digute. Batetik, (32)n adierazten diren kontestuak dira hizkuntza guztietan izenordain zehaztugabeak baimentzen dituztenak. Bestetik, eta hau da Hasplmath-en kontribuzio tipologiko handiena, izenordain jakin batek (forma jakin bateko izenordainak) funtzio bat baino gehiago betetzen badu, direlako funtzioak elkarren ondoan egon behar dute mapa horretan. Hizkuntzen arteko diferentziak forma eta funtzioaren uztarketari dagokionean, ez dira beraz zoriaren baitakoak, baizik eta hein handi batean mugatuak. Ez dago, esate baterako, Hasplmath-ek aztertu hizkuntzetan, kontestu ez-espezifikotetan eta zeharbidezko ezezkoetan agertzen den izenordain zehaztugaberik, galderazkoetan ere agertzen ez denik. Egon daiteke, hala ere, ezezkoetan eta zeharbidezko ezezkoetan agertzen den izenordain bat, galderazkoetan agertzen ez dena. Hizkuntzek modu batean edo bestean banatzen dute mapak adierazten duen funtzio eremua, baina banaketa lerroak ez dituzte sekula bereizten ondoz ondo edo marra batez lotuak diren kontestuak. Euskarak, gure egunean, honelako banaketa bide du (Haspelmath, 1997, 75.orr.):



Haspelmath-ek proposaturiko mapak predikzio batzuk egiten ditu gramatikalizazio prozesuaren zer-nolakoaz ere: mapak erakusten dituzten ondokotasun erlazioak izenordain forma posible guztiak agortzen badituzte, gramatikalizazio bideak erlazio horiek ere obedituko ditu. Izenordainek aurreikus daitezkeen modu batean eskuratuko dituzte funtzio berriak: hain zuzen ere ondoan (eta marra batez loturik) dauden funtzioetara lerratuaz. Hasplmath-en arabera horixe da gertatzen dena. Ikertzen dituen gramatikalizazio prozesuetan ez dago ezinezko ezerein eremuri dagokion bitarteko formarik. Aldiz, gramatikalizazio prozesuaren emaitza desberdinak espero litekeen modukoak dira. Hautu libreko interpretazioa duten erlatiboetako libreetarik eratorritako izenordainen kasuan honako taula ematen du adibide gisa (148.orr.):

(34) espezifikoa ez-espezifikoa galdera/baldintza gonbarazioa hautu librea

Errusiera *ugodno*

Txekera *-koli*

Frantsesa *qui que ce soit*

Errusiera *-libo*

Errusiera *-nibud*

Lezgera *jat'ani*, Frantsesa *quelque*

Txekiera *-si*

(34)ko taulak erakusten dituen gramatikalizazio bideek bi ezaugarri dituzte: (i) funtzio desberdinen ondokotasuna ez dela hausten (forma bakoitzak (32)-eko diagraman loturik agertzen diren funtzioak hartzen ditu); eta (ii) funtzioen etengabeko zabaltze bat baino areago, funtzio desberdinetarako lerratze bat dagoela, jatorrizko funtzioak atzean uzten dituen.

Euskararen kasuan, erlatiboetako libreterik eratorritako *norbait/zerbait* formak hautu libreko balioa izatetik kontestu ez-espezifikoa eta galdera/baldintzazkoak besarkatzen dituen eremuan baimenduak diren formak izateraino iritsi dira, balio existentziala dutenak. Honetan, euskarazko *norbait/zerbait* frantsesezko *quelque*-ren kide dira (lehenak izenordainak izanik, bigarrena determinatzailea bada ere). Frantsesezko *quelque* ere (Haspelmath, 1997, 139.orr.) erlatibo libre baten gramatikalizazioaren emaitza da. Hona frantses zaharreko kasu batzuk (Foulet, 1928, 190-191.orr.):

(34) Mes **quel** samblant **qu'**el en feist
li chevaliers samblant n'en fist (La Chastelaine de Bercy, 53-4)

XII.mendetik aurrera, *quel* (adjektibo balioarekin) eta *que* konplementatzailea elkarren ondoan agertzen hasten dira, guziz bat egin gabe, esapide ohiko batzuetan. Esapide horietan arruntena, *a quel que paine* “zein ere neke egiten baita, kosta ahala kosta”. XII.mendean bertan, badira etsenplu bakan batzuk non *quel...que* hurrenkerak osagai bakarria osatzen duen:

(35) an **quelque** leu **que** vos ailliez “nora ere joaten baitzara, edonora zoazela ere”
(Chrestien de Troyes, Li Contes del Graal, Perceval, 597-9)

Euskaraz bezala, frantsesezko *quelque* erlatibo libre batetik dator, eta hautu libreko izenordain zehaztugabe izatetik izenordain zehaztugabe existentziala izatera pasatu da.

Nola pasa dira baina, *quelque* eta *norbait*-en gisakoak existentzial izatera?

4.2. Gramatikalizazioaren eragileez

Lehen begiratuan, iduri luke izenordainaren bukaerako forma jokatuen ahulezia fonologikoa, eta haien ondorengo galerak –*bait* atzizkia sortu zutela. Behin hartaraz gero, hurrengo pausua *bait*-en aurretik zegoen flexio marka ororen (Kasu marka nahiz deklinabide atzizkien) kanporatzea izango zen. Kanporatze honen arrazoia morfologiaren antolaketa orokarraren baitan dago, eta honela eman daiteke (Haspelmath, 1993, 291.orr.; ikus baita ere Bybee, 1985, 40.orr.):

- (36) Flexioa Deribazioaren Kanpoan Egon Beharraren Printzipioa
Morfologikoki konplexua den hitz bat hobetsia da flexio hizkiak deribazio hizkiak baino urrutiago baldin badira errotik edo hitz oinetik

Delako hobespen printzipioa²⁵, bestalde, ez da aspaldiko unibertsal ezagun baten birformulazioa baizik:

- (37) Deribazioak eta flexioak biak ere erro edo hitz oinaren ondoan edo aitzinean badaude, deribazio hizkia beti dago erro edo hitz oinaren eta flexioaren artean (Greenberg, 1963: 28. Unibertsala)

Prozesu honen emaitza egungo formak dira. *Bait*-ek, atzizki bihurturik, flexio atzizki guziak kanporatu ditu izen oina jo arte, *nor*, *zer*, *non* eta *noiz* forma trinkoei lotuaz²⁶.

Alabaina, bizkaierazko forma osoagoek erakusten dute (hain zuzen ere adizki jokatua gorde dutelako) segmentu fonologia ez dela aldetaren eragilea izan. Kontutan hartu behar dugu baita ere, delako gramatikalizazio prozesuak ez duela ekarri ezabarazi duen egitura sintaktikoaren desagertzea. *Norbait* eta *zerbait*, biak *nor (ere) baita* eta *zer (ere) baita* egituretatik heldu zaizkigu (jatorrizko formak ezabatu dituen gramatikalizazio prozesu baten bidez), baina egitura horiek berak ez dira desagertu, produktibo izaten segitzen dute literatura klasikoan. Honek ez du hemen defendaturiko gramatikalizazio prozesua baliogabetzen. Forma gardenagoak eman duten bestelako gramatikalizazioetan, *zernahi/nornahi* kasuetan esaterako, antzeko gauza gertatzen da: *nornahi* eta *zernahi*–ren ondoan haien iturburua ematen duten *nor nahi den*, *nor nahi baita* ditugu, eta gramatikalizazio prozesuak hemen ere antzeko bitarteko formak eman ditu (OEH, nornahi sarrera):

- (38) a. Fite du garaitzen **noren nahi** konbata (Harizmendi,50)
b. Bazekien, **nurk nahi** bezin ongi (Larreguy, I 357)
c. Tranze batean **nori nai** gerta dakikeo argala izatea (Agirre Asteasukoa, Eracusaldiac III 295)

Ber gauza gertatzen da euskarazko *norbait/zerbait*-en antzeko bidea egin duen frantsesezko *quelque*-rekin. Lehen esan dugun bezala (3.2. atala), *quelque* forma balio kontzesiboko erlatibo libre batetik heldu da. XII.mendetik aurrera galdera izenordaina eta konplementatzailea elkarrekin lotuak agertzen hasten dira. XVII. menderako, bi elementuen lotura guziz burutua dago, eta *quelque* determinatzaile huts bezala erabiltzen da. Hori horrela delarik, XVII. mendeko idazleek *quelque*-ren azpian ustez dauden balio kontzesiboko erlatibo libreak enplegatzen segitzen dute, Molière-n perpaus honek erakusten duen bezala (Brunot eta Bruneau, 1949, 479.orr.):

- (39) **Quelle** violence **que** je me fasse (George Dandin,III, 7)

Erlatibo libreterik abiaturiko lerratzea inolako segmentu fonologikorik galdu ez duten forma osoagoen baitan gertatu da, eta jatorrizko forma uneoro “gogorarazi” behar zuten erlatibo libre kontzesiboen aitzinean. Hau da, izenordainen azpiko formak garden bihurtzen zituzten elementuak mantendu dira, baina ez dute gramatikalizazioa galarazi. Haspelmath-ek berak (1997, 136.orr.) ez du garbi ikusten nola gertatu den lerratze hori. Bistan da, hala ere, fonologikoki izenordainak forma ahulduak direla, segmentu fonologiaren aldetik ez bada, bai segmentuaz gainekoaren aldetik. Haspelmath-entzat, erlatiboaren gramatikalizazioaren oinarrian batera gertatzen diren bi fenomeno daude: lehena, erlatiboaren formen mailakatze balioaren galera da, berak “esanguraren ahultzea” deitzen duen prozesuaren bitartez azaltzen duena²⁷. Adibide gisa, jarri ditzagun ondoz ondo izenordain zehaztugabe existentziala, eta ustez haren azpian dagoen erlatibo librea:

- (40) a. Norbait ekar dezakezu
b. Nor ere baita ekar dezakezu

Hautu libreko erlatiboak eskala pragmatiko baten azken maila adierazten du. *Norbait* existentzialak, berriz, ez. Biek partekatzen dute ez-espezifikotasuna. Hautu libreko erlatibo bat balio existentzialeko izenordain bilakatzen denean, esan daiteke gramatikalizazioa semantikoki mailakatze funtzioaren (foko tasunaren) galerari zor zaiola, eta fonologikoki (hona hemen bigarren fenomeno) fokoak berez eskatzen duen azentzuaren galerari. Galeraren ondoan, mailakatzeak suposatzen zuen multzo jakin baten gaineko zenbaketa ahalmena galtzen da. Gelditzen den zenbaketa ahalmena existentzial huts batena da. Hau jakina, gramatikalizazio prozesuaren parte bat besterik ez da. Ez dakigu, esate baterako, nola integratu ziren forma hauek perpaus egituraren argumentu xoil gisa, jatorrian adjuntuak zirelariak. Atal honek bistan da, ikerketa luzeagoa behar du.

4.3. Zer zegoen zerbait izan baino lehen

Hemen aurkeztu dugun gramatikalizazio prozesuak berehalako galdera pizten du: *norbait/zerbait* bezalako izenordainak euskarak aspaldi gabe bildutako gaiak badira, zerk betetzen zuen izenordain horiek egun betetzen duten espazioa? Leizarragarengana jotzen badugu, *norbait/zerbait*-en ondoan *edozein(bat)* ere aurkitzen dugu balio esistentzialarekin baiezko perpausetan²⁸. Izenordain zehaztugabeen sistemaren bilakaerak azterketa serio bat behar duen alorra da, artikulu honen mugak guziz gaintitzen dituena. Litekeena da, hala ere, balio esistentziala ere bazuen *edozein(bat)*-ek egungo *norbait/zerbait*-en funtzioak betetzea. Hemen besterik gabe, *edozein(bat)* existentzial balioko etsenplu batzuk emango ditut, OEhtik hartuak.

- (41) a. Baina are erranen du **edozeinek**...”*Quelqu’un dira*” (Leič. Iac,18)
b. Baina baldin **edozeinek** uste badu ezen desohore duela “*Si quelqu’un...*” (Leič. Cor 7,36)
c. Zen bada fariseutarik **edozeinbat** Nikodemo deitzen zenik (Leič. Io 3,1)
d. Fikotze bat zuen **edozein batec** landatua bere mahastian (Leič. Lc 13,6)

Bibliografia

1. Korpusa
1.1. Hiztegiak

Azkue, R.M. 1905. *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Bilbao.

Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa. Ohiko euskal mintzamoldeen antologia. Bilbo:Euskaltzaindia. 1999.

Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca. Bilbo:La Gran Enciclopedia Vasca. 1976-1991.

Lhande, P. 1926. *Dictionnaire Basque-Français*, Paris: Beauchesne.

Michelena, L. 1987-1999. *Diccionario General Vasco-Orotariko Euskal Hiztegia.* Bilbao: Euskaltzaindia.

1.2. Idazlanak.

Agirre, T. 1950. *Uztaro*², Bilbo.

Aguirre, J.B. 1850. *Eracusaldia* III, Tolosa.

Aguirre, D. 1912. *Garoa*. Durango.

Axular, P. 1643. *Gero*. Facsimil edizioa. Bilbo:Euskaltzaindia, 1988.

Añibarro, P.A. 1821. *Escu-Liburua*². Tolosa, 1821.

Astarloa, P. 1818. *Urteco Domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac* II, Bilbo.

Beovide, C. 1885. *Asisko Loria*, Tolosa.

Dechepare, B. 1545. *Linguae Vascomum Primitiae*. Patxi Altunaren edizio kritikoa, Bilbao: Mensajero, 1987.

De la Quadra. 1784. *Doctrina Christinaubarena*. Eskz. In Gidor Bilbao. 1998. “De la Quadra-k Bermeon 1784an idatzitako eskuizkribuak. I. Doctrina christinauarena” *ASJU* XXXI-1, 247-336.

Iztueta, J.I. 1847. *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia*, Donostia.

Leizarraga, J. 1571. *Jesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria* [...]. La Rochelle. T. Linchsmann eta H. Schuhardt faksimilean argitaratua, I. Leizarragas Baskische Bücher von 1571 [...], Strasbourg:Trübner. Honen faksimila, Bilbao: Euskaltzaindia, 1990, 241-1197.

Lizaso, K. 1998. *Jose Joakin Mitxelena gogoan*. Auspoa liburutegia, 256. Gipuzkoa: Sendoa.

Mitxelena, K., A. Tovar eta E. Otte. 1981. "Nuevo y más extenso texto arcaico vasco: de una carta del primer obispo de México, Fray Juan de Zumárraga" *Euskera* XXVI (2. Aldia), 5-14.

Moguel, J.A. 1802 ingurukoa. *Peru Abarka*, Durango, 1881.

Moguel, J.J. 1885. *Mayatz-illeraco berba-aldijac*, Tolosa.

Moguel, V. 1804. *Ipui Onac*. Donostia.

Olaechea, B. 1763. *Doctrina cristiana*. Gasteiz.

Refranes y Sentencias. 1596. J. Lakarraren edizio kritikoa, Bilbao: Euskaltzaindia, 1998.

Sarasola, I. 1983. "Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos," *ASJU* XVII, 69-212.

Uriarte, J.A. 1850. *Marijaren illa edo Maijatzeco illa*, Bilbo.

Urquizu, D.L. 1737. *Liburu Virgina Santissimien errosario santuena*. Iruñea.

Zavala, J. M. 1820 inguruan. *Fábulas en dialecto vizcaíno*. *RIEV* 1907, 87-98, 529-543; 1909, 27-40.

Zuzaeta, M.I. (XIX.mende hasiera). F. Ondarra eta A. Unzueta (arg.) *Idazlanak*, Bilbao.

2. Erreferentziak

Azkue, R.M. [1923-1925]. *Morfología Vasca I, II, III*. Bilbo:La Gran Enciclopedia Vasca. 1969.

Bhat, D.N.S. 2000. "The indefinite-interrogative puzzle" *Linguistic Typology* 4, 365-400.

Brunot, F. 1929. *Petite syntaxe de l'ancien français*. Librairie Honoré Champion-ek berrargitaratua, Paris, 1990.

Brunot, F. eta C. Bruneau. 1949. *Précis de grammaire historique de la langue française*. Paris:Masson et Cie.

Cheng, L. 1991. *On the typology of wh-questions*. MITko tesi argitaragabea.

Culicover, P. eta R. Jackendoff. 1997. "Semantic Subordination Despite Syntactic Coordination" *Linguistic Inquiry* 28.2, 195-217.

De Rijk, R. 1981. "Euskal morfologiaren zenbait gorabehera" *De linguae Vasconum: Selected Writings*, Supplements of the Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo XLIII, Bilbao: EHU.

Etxepare, R. 2001. "Nori berea: *nor bere* egiturak euskaraz" Euskaltzaindiaren XV. Nazioarteko Biltzarraren agirietan agertzekoa.

Euskaltzaindia. 1985. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*. Iruñea.

Euskaltzaindia. 1993. *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*. Bilbo.

Fauconnier, G. 1985. *Mental Spaces*. Cambridge, Massachusetts: MIT Press.

Greenberg, J. 1963. "Some universals of grammar with particular reference to the order of meaningful elements" In Greenberg (arg.) *Universals of language*. Cambridge, Massachusetts: MIT Press. 73-113.

Haspelmath, M. 1993. "The diachronic externalization of inflection" *Linguistics* 31, 279-309.

Haspelmath, M. 1997. *Indefinite Pronouns*. Oxford Studies in Typology and Linguistic Theory. Oxford: Clarendon Press.

Haspelmath, M. eta E. König . 1998. "Concessive conditionals in the languages of Europe". In Johann Van der Auwera (arg.) *Adverbial Constructions in the Languages of Europe*. Empirical Approaches to Language Typology, Eurotyp 20-3. Mouton de Gruyter.

Lafon, R. 1944. *Le système du verbe basque au XVI siècle*. Éditions Delmas, Publications de l'université de Bordeaux. Elkar argitaletxeak berrargitaratua, 1980.

Lafon, R. 1966. "La particule *bait* en basque: ses emplois morphologiques et syntactiques" Ikus J. Haritschelhar eta P. Charritton (arg.) *Vasconiana*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1999, 667-687.

Lafon, R. 1973. "La langue basque" *Ibidem*, 57-120.

Li, Y-H.A. 1992. "Indefinite Wh in Mandarin Chinese" *Journal of East Asian Linguistics* 1, 2. zbka. 125-156.

Mitxelena, K. 1965. "Vasco-románica" *Revista de Filología Española*, 48, 105-119. *Lengua e Historia* artikulu bilduman berrargitaratua, Madrid: Paraninfo, 1985, 268-281.

Mitxelena, K. 1985. *Fonética Histórica Vasca*³. Publicaciones del seminario Julio de Urquijo, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Oyharçabal, Bernard. 1987. *Étude descriptive de constructions complexes en basque: propositions relatives, temporelles, conditionnelles et concessives*. Thèse de doctorat d'état, Paris.

Ortiz de Urbina, J. 1986. "Aspects of Basque lexical phonology" *Fontes Linguae Vasconum* 48, 205-224.

Rebuschi, G. 2000. “À propos d’une construction non-standard du basque” *Lapurdum* V, 223-237.

Rebuschi, G. 2001. “Sur la forme syntaxique et la forme logique de quelques phrases complexes” *Argitaragabea*.

Trask, R.L. 1997. *The History of Basque*. Routledge.

¹¹ Eskerrak eman nahi dizkiet artikulu honen idazketan lagundu didatenei: Joseba Lakarra, Bernat Oihartzabal, Georges Rebuschi eta Xarles Videgaini. Haietariko inor ere ez da, jakina, hemen esaten denaren erantzule.

² *Nor/zer* bezalakoak euskaraz ez dira segurenik berez galderazkoak. *Nor/zer* formek indar zenbatzaile aldakorra dute, batzutan unibertsal gisa (a), bestetan galdera izenordain gisa (b) eta bestetan berriz izenordain anaforiko plural gisa jokatzan dutelarik (c):

- (i) a. Nork bere herria maite du
- b. Nork maite du bere herria?
- c. Nor oinez nor autobusez etorri zen/ziren

Etxepare-k (2001, agertzekoa) *nor/zer* elementuen zenbatusun ahalmena sintaktikoki mugarrtua dela proposatzen du, hau da, *nor/zer*-en zenbaketa ahalmen askotarikoak perpaus egituran gauzatuak diren tasun kuantifikazional diferenteeekin asoziatuak izatearen ondorio direla, Beghelli (1995), Beghelli & Stowell (1997) eta Szabolcsiren (1997) lanen izpirituan. Aurrerakoan *nor/zer* formak, ohi bezala, galderazkoak direla emango dut, irakurketa errazte aldera.

³ Existenzialen sailean sartu behar dira baita ere *nor edo nor*, *nor edo hura* edo *nonor*-en gisakoak. Badirudi, testuaren lekukotasunari begiratzen badiogu behintzat (OEH-ek ematen duena) forma hauek besteak baino berriagoak direla. Zaharragoak diren izenordainen jatorriaz jarduten garen bitartean bazter utzi daitezke beraz.

⁴ Bi exenpluok George Rebuschi-k helaraziak dira.

⁵ Erreferentzia guztiak Orotariko Euskal Hiztegitik hartuak dira, besterik esaten ez bada.

⁶ Sarasolak bere iruzkinetan hauxe dio: “la –a de *çerbayta*, clarísima en el manuscrito, no acertamos a explicarla si no es por lapsus de escritura” Mitxelenak, Tovar-ek eta Otte-k (1981) berriz, “*çerbayta*, con una –a inexplicable” diote. Artikulu honetan defendatzen den hipotesiaren arabera, ez da miresteko forma bat, baizik eta Azkuek jasotako *zepaita*-ren kidea.

⁷ OEHak ere *norabaita* bat ematen du, Salbatore Mitxelenarengandik jaso. Hala ere, zaila da jakitea hemen *norabait* eman duen forma osoago bat dugun ala *nonbaiten* gisako forma bat, zeinetan bukaerako –a hori izenordainaren barneko adlatiboa errepikatzen duen. *Norabaitera* bezalako forma pleonastikoak ez dira bestela ere ezagunabeak:

- (i) Jolasak norabaitera eramanez (Agirre, *Garoa*, 162.orr.)

⁸ Lhande-k honen jatorria garbi zuen (1926): *nunebeita* < *non ere beita*. Berez, laburtu gabeko formak ere aurkitzen ahal dira. Euskal Herriko Atlasaren Antologiak *non ere beita* dakar, “seguru aski” esanahiarekin, Urdiñarbeko (Zuberoa) hiztun bati hartua: ...*hori entzūna dūzu nun ere beita*... (169. orr.). Ikus 3. atala.

⁹ Hitzez hitz: “Es caso muy curioso y digno de notarse que *bait* cuando, en vez de prefijo conjuntivo [adizkiari lotzen zaiona]... es sufijo graduativo [izenordainei lotzen zaiona], tiene las mismas variantes *baist* (B) y *beit* (S)”. Euskal Herriko Atlasak Azkuek jaso gabe utzi zituen antzeko aldaerak jasotzen ditu Zuberoan: *nuispaist* (Sohūta, Altzai eta Altzürükün) eta *nuspatx* (Santa Garazin). Eskerrak Xarles Videgaini datuengatik. Diccionario de Autoridades-ek eta OEHak *nuizpaizt* jasotzen dute. Ikus 16. oharra.

¹⁰ Aipamena *Vasconiana* izenburupean agertutako artikulu bildumatik egiten dut: “le suffixe –*bait* est certainement apparenté à *ba*, *bai* ‘oui’. L’adjonction de *bait* à un interrogatif indéfini soulignait sa valeur affirmative et lui ôtait tout caractère interrogatif.” (683.orr.). Gavel-ek ere antzeko intuizioa izan omen zuen, garbiki azaldu ez bazuen ere (688.orr.).

¹¹ “Les deux syntagmes *norbait dago* ‘quelqu’un demeure’ et *nor baitago* ‘celui qui demeure’ sont deux formes différenciées d’un type plus ancien où *bait* pouvait indifféremment, avec valeur affirmative dans les deux cas, s’ajouter au pronom ou au verbe. Dès l’époque des plus anciens textes, *bait* est soudé soit à l’un soit à l’autre. Mais il reste quelques traces du temps où *bait* était une particule indépendante.

Ainsi, l'ergatif de *norbait*,...est chez dechepare *nor bait ere*, où c'est *nor* qui porte la marque du cas..." (688.orr.)

¹² "The indefinites like *norbait* 'somebody' have an obvious origin. Originally, it seems, the interrogatives were also used as indefinites, and were marked in this function by the presence of the prefix *bait-* on the finite verb. But sequences like **nor baitzen* 'it was somebody' were reanalysed as *norbait zen*, with the affix being transferred from the verb to the pronoun." (1997, 197-198.orr.)

¹³ Hau Haspelmath-en hautua da. Ez da errez ikuspegi hertsia honen bitartez euskarazko *edo-nz* izenordain zehaztugabeen gisako formen berri ematea. Haspelmath bera ere ohartzen da (1997, 164-166.orr.), baina aldi berean kausitzen du berak aztertutako hizkuntza gehienetan disjunkzioa *nahi izan* bezalako aditz batetik eratorria nahiz balio eskalarra duen partikula batetik eratorria dela (komunzki, euskarazko "behintzat"-en ordaina dena). Galderazkoen forma duten izenordain zehaztugabeen buruz (e.g. Txineraren kasua, Li (1992)), berriz, galdera hitzen aldean izenordainek izaera konplexua dutela defendatzen du, horretarako zero-deribazioa behar badu ere. Klima-ren (1966) analisisian ez bezala, beraz, Haspelmath-entzat izenordainak galderazko formetarik eratorriak dira. Izaera konplexukoak ez diren izenordain zehaztugabe bakarrak berak generikoak deitzen dituenak dira (182.orr.), "persona", "gauza", "lekua" edo "denbora" bezalako kontzeptuak adierazten dituzten izen soilak zenbait hizkuntzatan izenordain zehaztugabe gisa baliatzen ahal direnak (frantsesezko *rien* bezalakoak). Agian hemen sartu beharko genuke euskarazko *deus* ere (<lat. *genus*, cf. Mitxelena, 1965). Haspelmath-en ustea, galderazkoen eta forma bereko izenordainen arteko erlazioari dagokionean ez zait aski oinarritua iruditzen, eta izenordainen iturburu posiblez ari garenean kontutan hartzeko zerbait da. Ez dut uste hala ere lan honen gaia, bere zehatzean, ukitzen duenik.

¹⁴ Hona hemen bigarren tiporeen esanplu gehiago. (Haspelmath, 1997, 138. orr.)

(i)	Alemaniera	<i>wer auch immer</i> =edonor	<i>wer</i> "nor", <i>auch</i> "ere"
	Serbo-kroaziera	<i>i-ko</i> =edonor	<i>-ko</i> "nor", <i>i-</i> "ere"
	Indonesioa	<i>siapa-pun</i> =edonor	<i>siapa-</i> "nor", <i>-pun</i> "ere"
	Gooniyandia	<i>ngoorndoo-ngaddaya</i> =norbait	<i>-ngaddaya</i> "ere"
	Sanskritoa	<i>kas cana</i> =edonor	<i>cana</i> "ere"
	Japoniera	<i>nani-mo</i> =ezer ez	<i>-mo</i> "baitaere"
		<i>nan-demo</i> =ezer/deus	<i>-demo</i> "ere"
	Hindi/Urdu	<i>koi bhii</i> =inor	<i>koi</i> "nor (zehaztugabea)" <i>bhii</i> "ere"

¹⁵ Inork esan lezake *baita-k* baduela eiterik aski *baita* lokailuarekin, eta hau ez dagoela urrutiegi mailakatzeko funtzioa duen *ere*-tik. Antzekotasunaren azpian mamizko *deus* ere ez dagoela garbi aski uzten dute honako hiru datuek: (i) *baita* aditzondoak ez du *baista* edo *beita* aldaerarik; (ii) *baita-k* ez du sekulan, guk dakigunez, mailakatzeko funtziorik izan, bere baitarik; eta (iii) *baita* eta *ere* elkarrekin agertzen direnean ordena *baita...ere* da, ez *ere...baita*, baina azken hau da *nolerebait* izenordain konplexuetan aurkitzen duguna.

¹⁶ Jakina, honek behartzen gaitu *-baist* aldaeraz galde egitera. Konbikzio haundirik gabe mintzatuz, *baist* -en azpian *bai* ez eta egon liteke (cf. *baizik*<**bai-er-ik* eta *baizen* >**bai-er-en*, Lafon, 1957-58, 242-tik aurrera).

¹⁷ *Nor* -en kasuan behintzat, *ere*-rik gabekoak ere badira (OEH):

(i) *Nor baita txarrena./ hark dik hark hobena* (Zalduby, RIEV 1909, 228)

¹⁸ *Baita* *Pouvreau* ere, bere hiztegia: *Nor ere baita* "quel qu'il soit". Eta Urte, gramatika: *Norerebaita*,... "Qui que ce soit..." (Gramatika, 75)

¹⁹ Bide horretatik abiatuak iduri dute iparraldeko *nik dakita nor/zer/non/zenbat* bezalakoak, *-a* galderazkoarekin. Eskerrak B. Oihartzabali oharragatik.

²⁰ Azkuek *zeinein* (BN-aezk) jasotzen du hiztegia "cualquiera; quelconque", *zein+nahi+den* -etik, bere ustetan.

²¹ Hemen kontutan hartu behar da ere euskaraz juntagailuak klitizatzen direnean atzetik egiten dutela, cf. *edo*-ren joera juntadura moztuetan (*bihar-edo joango da*) eta *-ta* atzizkia orohar. Eskerrak B. Oihartzabali ohar honengatik.

²² *Trask*-en ustetan *edonor nor edo nor* formatik heldu da, laburbidez. Hipotesiak gutxienez problema bat du, eta da *nor edo nor* eta *edonor* formek ez dutela zenbatasun balio bera (baina ikus 4.3.atala).

²³ Esan behar da testuan ematen ditudanak ez direla egitura libreak, korrelatiboak baizik. Asumituko dut forma libreak ere izan zirela edo badirela, hiztegiek aipatzen ez badute ere.

²⁴ Termino batzuk ez dira beharbada identifikatzen errez: "zeharbidezko ezeztapena"-z (Haspelmath-en "indirect negation") adierazi nahi dugu ezeztapena eta harekin loturiko izenordaina perpaus berean agertzen ez diren kasua, hainbat hizkuntzatan izenordain berezi bat behar duena. Adibide gisa, hungariara (Haspelmath, 1997, 33):

- (i) a. Nem lát-t-am **sem-mi-t** ez nekusan ezer
 b. Nem hisz-em, hogy **vala-ki** lát-t-a volna ez dut-uste Konp inork ikusi duen

Non ezeztapena dagoen perpaua berean agertzen den izenordain zehaztugabea eta ezezeko formarik ez duen menpeko perpaua batean agertzen dena bi izenordain sail diferenteren dagozkion, formalki.

“Irrealis ez-espezifikoa” terminoaz, berriz, subjektu baten menpeko espazio mental edo denbora-moduzko batetik kanpo erreferentziarik ez duen izenordaina (Fauconnier, 1985), hizkuntza askotan ere forma berezia galdetzen duena. Haspelmath-en kontestu guztiak lau bitariko tasunen laguntzaz karakteriza daitezke (1997, 119.orr.):

- (ii) Hiztunaren ezaguna vs. hiztunaren ezagunabea
 (iii) Espezifikoa vs. ez-espezifikoa
 (iv) Mailakatzerik erakusten duena vs. mailakatzerik erakusten ez duena
 (v) Ezeztapenaren menpekoa vs. ezeztapenaren gainekoa

Mapako loturak halako moldez daude eratuak non tasun bera duten funtzioak maparen eremu jarraitu bat osatzen baitute.

²⁵ Haspelmathen arrazoia, (24) antolaketa printzipio hertsia baino hobespen printzipio gisa hartzeko, gramatikalizazio prozesuan sortzen diren forma pleonastikoak dira. Kontsideratu esate baterako Georgieraren izenordain zehaztugabeen (*edonor/zer* sailari dagozkionak) bilakaera historikoa:

	forma zaharra	bitartekoa	berria
nom	ra-me	_____	ra-me
dat.	ra-s-me	ra-s-me-s	ra-me-s
adv.	ra-d-me	ra-d-me-d	ra-me-d
gen	r-is-me	_____	ra-me-s
instr	r-iti-me	_____	ra-me-ti

Non *ra-* gure *zer* -en ordaina den eta *-me* izenordain zehaztugabea sortzen duen partikula. Forma zaharretan, euskaraz bezala, partikula hori kasu marken ondoren dator (*-s-*, *-d-*, *-is-* eta *-iti-* kasu markak dira). Bitarteko formak pleonastikoak dira, kasu marka *me*-ren aurretik eta ondoan agertzen direlarik. Forma berriek flexioa kanpoan dute. Haspelmath-en arabera, lexikoaren antolaketa morfologiko hertsia batek ez du forma pleonastikoen presentzia esplikatzen. Euskaraz forma pleonastikoak ere agertzen dira, flexioaren kanporatze prozesuan: *nondikbaitik*, *norabaita*, *nonbaiten*. Halere ohar gaitzen ez dugula **norkbaitek*, **noribaiti* edo **nortzubaitzu* bezalakorik. Agian ez da kasualitatea, georgieraren kasuan ere genitibo eta instrumentaleko formak aldaera pleonastikorik ez sortzea gramatikalizazio prozesuan zehar. Litekeena da forma pleonastikoen presentziak maila deribazional eta flexiboaren arteko bereizketa ez kolokan jartzea, baizik eta maila flexiboan bertan dauden linearizazio arauen laxatzea erakustea.

²⁶ Interesgarria da, hartara, egungo *norabait/nonbaitera* alternantzia, adlatiboaren azpian lokatiboa dagoela erakusten duena. Hau bestalde ere ikusten da zubererazko deklinabidean, inesiboko *-a* morfema posposizionala ager baitaiteke adlatiboan: *oihaniala*, *etxilat>etxialat* (B. Oihartzabali zor diodan oharra).

²⁷ Honek primitibo baten balioa du Haspelmathentzat, ez baita beste inondik ere segitzen. Ez da, bistan da, deuseren esplikazio bat (nahiz eta gramatikalizazioaren ikerlariek honelakoak esplikazio gisa hartzen dituzten). Ez dator bat printzipio hauen alegiazko balio esplikatiboarekin. Aldiz, fenomeno orokorra den neurrian, eta modu intuitiboan honela deskriba daitekeen neurrian, esplikazio baten esperoan dagoen jeneralizazio gisa hartuko dut.

²⁸ RS-en aldiz, *edozein* “cada uno/chacun”-en adierarekin agertzen da. OEHak *inor/nehor* polaritadedunak ekartzen ere ditu balio existentzialdun gisa. Etsenplu bereziki garbia da Pouvreau-ren hau:

- (i) Nola nork ere **nihor** maite baitu naturalezako amorioz (SP Phil 128)

Hala ere ez dirudi *nehor/inor* izenordainak edozein existentzial klase direnik: Haspelmath-en “irrealis non-specific” kategoriari dagozkiola ematen du. Katetoria hau gauzatzen duten formak distribuzio kontestuetan ere agertzen dira, banaketa gai bihurtzen direlarik (Pouvreau-ren exenpluan bezala). Gainerakoan, ekialdeko XVI eta XVII. mendeko testuetan, polaritatezko kontestuetarik kanpo *nihor*-ek interpretazio inpersonala behartzen duela ematen du:

- (ii) a. Eta hec ethorri ciradenean Iesusgana, othoitz ceguioten affectionatuqui, cioitela, ecen digne cela **nehorc** hura aithor lieçon (Leič. Luc 7, 4)
 b. Ceren bertceac bertce direla (lehen erran den beçala) gazteco usantçac iarraitquitcen ohi çaitça **nehori**, çahartcean ere. (Ax. 175. orr.)
 c. **Nehorc** debecu den gauça ...desiratzenago du (Ax. 359)